

JAUNAREN BERBIZKUNDEKO PAZKO EGUNA

Sarrerako oharra

Anai-arrebok:

Pazko egun ospetsu honetan,
argi-distiraz bete daitezala lurreko bazter
guztiak,
eta pozez gainezka egin daiela
gure bihotzek.
Berbiztu daitela itxaropena,
sendo sortu bizia,
eta bakea erne, zuzentasunaren fruitu lez.

Barri Ona iragarten dogu
Espirituaren indarraz:
Jesus biztu egin da,
hirugarren eguneko eguntsendian.
Alkarregaz izan gura dogu
gaur Jesukristok hasten dauan
gizadi barriaren lekuko.

Egun santua dala autortzen dogu.
Maitasun eta pozezko,
askatasun eta itxaropenezko eguna

Gose eta gerraren erdian,
ugaritasun eta bakearen agintzaria
ospatzen dogu.
Gorroto eta heriotzaren erdian,
maitasun eta adiskidetasunaren agerpena os-
patzen dogu.
Inguratzen gaituan heriotzean,
berbizkundearen itxaropena abesten dogu.

Biztu da Kristo, bizi da Kristo!
Egun santua da,
gure Pazko eguna.
Alkarregaz ospatuko dogu gaur
geurea be badan bere garaipena.

DOMINGO DE PASCUA DE LA RESURRECCIÓN DEL SEÑOR

Monición inicial

Hermanas y hermanos:

En este día solemne de Pascua,
brille la luz en los confines de la tierra
y desborden de alegría
nuestros corazones.
Que renazca la esperanza,
surja con fuerza la vida
y brote la paz como fruto de la justicia.

Anunciamos la buena nueva
con la fuerza del Espíritu:
Jesús ha resucitado al alba del tercer día.
Juntos queremos ser testigos
de la nueva humanidad
que hoy inaugura Jesucristo.

Reconocemos que este día es santo.

Día de amor y de alegría,
de libertad y de esperanza.

En medio del hambre y de la guerra
celebramos la promesa
de abundancia y de paz.
En medio del odio y de la muerte
festejamos la presencia del amor
y la amistad.
En medio de la muerte que nos ronda
cantamos la esperanza en la resurrección.

Cristo ha resucitado, Cristo vive.
Es día santo,
es nuestro día de Pascua.
Juntos celebramos hoy su triunfo,
que es el nuestro.

Lehenengo irakurra, Pedro apostoluak Jesusen historia aurkezten dau, laburtuta. Horregaitik, apostoluek, aho batez, lekukotasun bera emoten dabe: Jesus on eginez bizi izan zan eta heriotzaren ostean Aitak berbiztu egin eban.

Guztioi dei egin jaku geure fedearen oinarri dan biztueraren lekuko bizi izan gaitazan.

APOSTOLUEN EGINAK LIBURUTIK - Eg 10, 34a. 37-43

Egun hareetan, honan berba egin eban Pedrok: «Badakizue zer jazo zan Galileatik hasi eta Judea osoan, Ioanek iragarritako bateoaren ondoren, Nazaretoko Jesusena, hain zuzen ere: Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak igurtzi eban, eta harek on egiten eta deabruak hartutako guztiak osatzen igaro eban bere bizitza, Jainkoa beragaz eban-eta.

Eta gu gara Harek juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau egur batetik zintzilik hil eben; baina Jainkoak biztu egin eban hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena emon eutsan; ez, oster, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baino: guri hain zuzen ere, Ha hilen artetik biztu ondoren Beragaz jan eta edan dogunoi.

Jesusek berak agindu euskun herriari predikatzeko, eta autortzeko Bera dala Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini dauana. Profeta guztiak autormen hau egiten dabe Haretaz: Haregan sinestu dagien guztiak pekatuen parkamena hartuko dabela, beraren izenean».

Jaunak esana.

SAL I 17, 1-2. 16bc-17. 22-23

**R/. Hau da Jaunak egin dauan eguna,
gu pozteko eta alaitzeko eguna.**

edo Aleluia, aleluia, aleluia.

Eskerrak Jaunari, ona da-eta,
Haren maitasuna betikoa da-eta.
Israel etxeak hau esan begi:
«Haren maitasuna betikoa». R/.

«Jaunaren eskumeak nau jaso,
Jaunaren eskumeak bizkor dau jokatu».
Hil ez, bizi egingo naz,
Jaunaren eginak nik iragarriko. R/.

Etxegileek baztertutako harria,
berori da giltzarria.
Jaunak egin dau hori,
gure begien harrigarri. R/.

R/. Au e - gu - na, au, Jau - nak e - gi - ña, gu - re po - za ta gu -

re - a - tse - gi - ña.

*Eskerrak emon / Jaun onari,
ain dau aundia / bere betiko / errukia.
Israeldarrok / esan Ari:
ain dau aundia / bere betiko / errukia. R/.*

*Jainko-eskua / da indartsu,
Jaungoikoaren / eskubiak nau / ni goratu.
Ez naz ilgo, ez / bizi baiño,
Jaunak egiñak / nai nitukez nik / adierazo. R/.*

R/. Hau e - gu - na hau, Jau - nak e - gi - na, gu -

re - po - za ta gu - re a - tse - gi - na.

Eskerrak Jaunari, **ona** da-ta,
Haren maitasuna betikoa da-ta.
Israel-etxeak hau **esan** begi:
«Haren maitasuna **betikoa**». R/.

Etxegileak baztertutako **harria**
berori bihurtu da giltz-**harria**.
Jaunak egin **dau** hori,
gure begien **harrigarri**. R/.

En la **primera lectura**, el apóstol Pedro expone, en síntesis, la historia de Jesús. Por eso, el testimonio de los apóstoles es unánime: Jesús vivió haciendo el bien y tras su muerte, el Padre le resucitó.

Gu guztiok gagoz gure fedearen oinarri dan biztueraren testigu biziak izatera gonbidatuak.

LECTURA DEL LIBRO DE LOS HECHOS DE LOS APÓSTOLES – Hch 10, 34a. 37-43

En aquellos días, Pedro tomó la palabra y dijo:

- Vosotros conocéis lo que sucedió en toda Judea, comenzando por Galilea, después del bautismo que predicó Juan. Me refiero a Jesús de Nazaret, ungido por Dios con la fuerza del Espíritu Santo, que pasó haciendo el bien y curando a todos los oprimidos por el diablo, porque Dios estaba con él.

Nosotros somos testigos de todo lo que hizo en la tierra de los judíos y en Jerusalén. A este lo mataron, colgándolo de un madero. Pero Dios lo resucitó al tercer día y le concedió la gracia de manifestarse, no a todo el pueblo, sino a los testigos designados por Dios: a nosotros, que hemos comido y bebido con él después de su resurrección de entre los muertos.

Nos encargó predicar al pueblo, dando solemne testimonio de que Dios lo ha constituido juez de vivos y muertos. De él dan testimonio todos los profetas: que todos los que creen en él reciben, por su nombre, el perdón de los pecados.

Palabra de Dios.

SAL 117, 1-2. 16ab-17. 22-23



Dad gracias al Señor porque es bueno,
porque es eterna su misericordia.
Diga la casa de Israel:
eterna es su misericordia. R.

La diestra del Señor es poderosa,
la diestra del Señor es excelsa.
No he de morir, viviré
para contar las hazañas del Señor. R.

La piedra que desecharon los arquitectos
es ahora la **piedra angular**.
Es el Señor quien lo ha hecho,
ha sido un milagro patente. R.

Paulo apostoluak, **bigarren irakurraian**, bateoaren bidez Jesukristoren heriotza eta biztueragaz bat egiteak bizimoduz, jokaeraz eta jarreraz aldatzea eskatzen deuskula nabarmentzen dau.

Onartu daiguzan gogoeta honeek.

SAN PAULO APOSTOLUAK KOLOSARREI EGINDAKO EPISTOLATIK - Kol 3, 1-4

Senideok:

Kristogaz berbiztu zareen ezker, bilatu egizuez zeruko gauzak, han dago-eta Kristo, Jainkoaren eskumaldean jesarrita. Bilatu egizuez goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilda zagozelako, eta zuen bizia Kristogaz dagoalako Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko danean, zuek ere aintzatsu agertuko zaree haregaz batera.

Jaunak esana

El apóstol Pablo, en la **segunda lectura**, pone en evidencia que nuestra incorporación a la muerte y resurrección de Jesucristo por el bautismo nos exige un cambio radical en nuestras vidas, en nuestro comportamiento y en nuestras actitudes.

Onartu daiguzan gogoeta honeek.

LECTURA DE LA CARTA DEL APÓSTOL SAN PABLO A LOS COLOSENSES – Col 3, 1-4

Hermanos:

Si habéis resucitado con Cristo, buscad los bienes de allá arriba, donde Cristo está sentado a la derecha de Dios; aspirad a los bienes de arriba, no a los de la tierra.

Porque habéis muerto; y vuestra vida está con Cristo escondida en Dios. Cuando aparezca Cristo, vida vuestra, entonces también vosotros apareceréis gloriosos, juntamente con él.

Palabra de Dios.



*Opari eskeinia izan da Kristo, gure pazko-bildotsa.
Ospatu daigun, beraz, Jaunagan.*

Ha sido inolada nuestra víctima pascual: Cristo.
Así pues, celebremos la Pascua en el Señor.

✠ JESU KRISTOREN EBANJELIOA SAN JOANEN LIBURUTIK - Jn 20, 1-9

Astearen lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zan goizean goiz, artean ilun egoala, eta harria hilobitik kenduta ikusi eban. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite eban beste ikasleagana bihurtu zan lasterka, eta esan eutsen:

- Eroan egin dabe Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri daben.

Urten eben, orduan, Pedrok eta beste ikasleak, eta hilobira abiatu ziran. Biak batera joiazan lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago joian, eta lehenago heldu zan hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituan, baina ez zan sartu.

Heldu zan haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zan. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituan, baita Jesusen burua batzen egoniko zapia ere; baina hau ez egoan oihal-zerrendakin batera jarrita, beste toki batean batuta baino.

Orduan, sartu zan beste ikaslea ere, hilobira lehenengo heldu zana. Ikusi eta sinestu egin eban. Izan ere, ordurarte ez eben ikasleek ulertu Liburu Santuak dinoena, Jesusek hilen artetik biztu behar ebal, hain zuzen ere.

Jaunak esana

✠ LECTURA DEL SANTO EVANGELIO SEGÚN SAN JUAN – Jn 20, 1-9

El primer día de la semana, María la Magdalena fue al sepulcro al amanecer, cuando aún estaba oscuro, y vio la losa quitada del sepulcro.

Echó a correr y fue donde estaban Simón Pedro y el otro discípulo, a quien Jesús amaba, y les dijo:

- Se han llevado del sepulcro al Señor y no sabemos dónde lo han puesto.

Salieron Pedro y el otro discípulo camino del sepulcro. Los dos corrían juntos, pero el otro discípulo corría más que Pedro; se adelantó y llegó primero al sepulcro; e, inclinándose, vio los lienzos tendidos; pero no entró.

Llegó también Simón Pedro detrás de él y entró en el sepulcro: vio los lienzos tendidos y el sudario con que le habían cubierto la cabeza, no con los lienzos, sino enrollado en un sitio aparte.

Entonces entró también el otro discípulo, el que había llegado primero al sepulcro; vio y creyó.

Pues hasta entonces no habían entendido la Escritura: que él había de resucitar de entre los muertos.

Palabra del Señor